

2011KO EKAINAK 11

11 DE JUNIO DE 2011

**BATZARRALDIA: GORPORAZIO ERATZEA ETA ALKATEA
AUKERATZEA**

**SESION: CONSTITUCION AYUNTAMIENTO Y ELECCION
DE ALCALDE**

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA
LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2011KO EKAINAK 11
DIA: 11 DE JUNIO DE 2.011

HASIERA ORDUA: 9:00
HORA DE COMIENZO: 9:00

" ZUMAIAKO Udaleko Ekitaldi Aretoan, bi mila eta hamaikako ekainaren hamaikan goizeko bederatziak direnean, ekitaldiaren fede ematen du idazkariak, Gorka Urgoiti Agirre Jnak . batzarraldi honen helburua Udalaren eraketa dela adieraziz, sarrera gisa honako hau azaltzen du:

Egunon, Ongi etorriak izan zaitezte guztiak eta bilkura berezi honi bere hasiera emango diogu eta horretarako Hauteskunde Araubide Orokorren Legearen 195 eta 196 artikulua jarraiki, lehenik joan den maiatzaren hogeitabian egindako udal hauteskundeetan aukeratuak izan direnen izenak hauek dira:

BILDU TALDE POLITIKOA:
Iñaki Agirrezabalaga Alkorta,
Azis Alberdi Zaldunbide,
Iñaki Ostolaza Esnal,
Arritokieta Gonzalez Elosua,
Eneko Agirre Maiora,
Maitane Agirre Arrieta,

EAJ-PNV TALDE POLITIKOA:

Montse Arana Perez,
Edurne Egaña Manterola,
Juan Carlos Cendoya Aizpurua,
Ana Arranz Irigoyen,
Isidro Fernandez Echave,

ARALAR TALDE POLITIKOA:

Aitor Leiza Alberdi,

PSE-EE/PSOE TALDE POLITIKOA:

Emiliano Cabañas Gonzalez,

Batzarraldiari hasiera eman eta gero, adineko mahaia osatuko da, kredentzialak ziurtatuko dituzte eta ondoren jarraian Alkatearen Hautaketara pasako zarete.

Behin idazkariak batzarraldiari hasiera eman eta gero, Adineko mahaia osatzen da, martxoaren 13ko 8/1.991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde orokorren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1.985 Lege Organikoko 195.2 artikuluan aurikusitakoa betez, Mahai hori osatzen dutenak izango dira 64 urteko Ixidro FERNANDEZ ECHAVE Jna, Zinegotzi hautatu zaharrena izanik mahaiburu izango dena, eta 24 urteko Maitane AGIRRE ARRIETA And, Zinegotzi hautatu gazteena izanik, eta kontuan izanik batzarraldi honetara etorri direla hautatuak izan diren Zinegotzi guztiak hau da, gehiengo absolutu legala, Adineko mahaiko Buruak karguaren jabetza ematen die zinegotzi hautatuei, eta korporazioa formalki eratua aitortzen du.

Idazkariak adierazten die bertan daudenei martxoaren 13ko 8/1.991 Lege Organikoaren bidez aldatutako Hauteskunde Orokorren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1.985 Lege Organikoaren 196 artikuluan xedatzen denaren arabera, Gorporazioa eratu den batzarraldi berdinean aukeratu behar dela Alkatea ere, lege horretan ezarritako prozedurari jarraiki:

Beraz, Adineko mahaiaren Lehendakariak, zinegotziak banan-banan izendatu behar ditu eta hor paperetan daukazuten ezkerreko laukian zeuen bozkak edo hautatu duzuten zerrendaburua bozkatzuz gurutze bat ipini ondoren saski txiko horretan uzteko,

Alkategai izendatzen dira ondoko zinegotzi hautatuak:

Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA Jauna, BILDU alderdiko zerrendaburu dena.

Montserrat ARANA PEREZ, Anderea. EAJ-PNV. alderdiko zerrendaburu dena.

Aitor LEIZA ALBERDI, Jauna, ARALAR alderdiko zerrendaburu dena.

Emiliano CABAÑAS GONZALEZ Jna. PSE-EE/P.S.O.E. alderdiko zerrendaburu dena.

Paper guztiak jaso z gero, botuen kontaketa egiten da eta Adineko mahaiaren Lehendakariak, alkate izateko txartel bakoitzean proposatu den zinegotziaren izen-deiturak irakurtzen ditu honako emaitzarekin:

Emandako botu kopurua: Hamahiru

Iñaki Agirrezabalaga Alkorta Jna. ZAZPI (7) botorekin

Montserrat ARANA PEREZ, And. BOST (5) botorekin

Emiliano CABAÑAS GONZALEZ Jna. Boto BATEKIN (1)

Botazio emaitza ikusirik, **IÑAKI AGIRREZABALAGA ALKORTA,** Udal honetako Alkatea izendatzen da **ZAZPI botorekin,** boto gehiena lortu dituelako, hain zuzen, gehiengo absolutua osatuz, Ondoren, Udaleko Alkate kargua onartzen duela adieraziz, **Iñaki Agirrezabalaga** Jaunak hitza hartzen du honakoa adieraziz:

“ Eskerrik asko Alkate haukeratu nauzuelako eta eskerrik asko noski hona etorri zaretenoi eta noski txalo horiengatik.

Orain dela 664 urte Castelako Alfontso XI. Erregeak Karta Puebla izaera eman zion Zumaiari eta data hortatik aurrera Herrigisa antolatze gaitasuna izan du gure Herriak.

Urte luze guzti horietan asko izan dira Herrian eman diren gertakizunak eta horrela jasota geratzen da Herriko historia liburuetan, asko izan dira Herriak izan dituen liskar eta litigioak. Asko Herriak izan dituen poztasunerako arrazoiak edo eta negar egiteko gertaerak, eta asko

udaletxetik pasa izan diren Alkateak, datuak daudenetik 296. Alkate Haukeraketa da, hain zuzen, gaurkoa.

Herri Alkate Haukeraketaren prozedurak asko aldatu izan dira historian zehar. Gure antzinakoek esaterako honako ohitura hau zeukaten, urteko ekainak 24 bakoitzean eta meza nagusia bukatu ondoren Parrokiako ate parean, Elizako sarreran, Herritar denak biltzen ziren. Garai hartako idazkariak presente zeuden denen aurrean zera adierazten zuen. Hautatuak izateko zein baldintza bete behar ziren eta beraz aukeratuak zein izan zitezkeen eta bestetik Hautesle izateko zein baldintza bete behar ziren.

Bi horiek irakurrita Herri guztia ordezkatzeko zuten sei Hautesle aukeratzeari ekiten zitzaion, bakoitza ixolatu eta hautagaien inolako presiorik jaso ez zutela zin egin ondoren, hautatuak izan zitezkeen izenak esateari ekiten zioten. Sei hautesleek izenak eman ondoren Idazkariak txartel batean idatzi eta txapel batean jartzen zituen berriro ere denen aurrean eta Herriko haur baten bidez, txartel bat ateratzen zuen arte.

Txartelean jartzen zuen izena izango zen hautatua Alkate.

Gaur egunean arrotzak egiten zaizkigun izen eta abizenak pasa izan dira Herriko Agintaritza Nagusitik:

Juan Perez de Ecuri, Lope Iñiguez de Elorriaga, Diego de Zumaia edo Jeronimo Perez de Ubillus, batzuk aitatzeagatik.

Atxilotutako Alkaterik izan da gure Herrian, hala nola eta Herriko historia latzenaren ispilu une berean eta ofizialki bi udaletxe ezberdin izan ditugun garaiak ere izan dira Herrian.

Eta Herriko Gobernatzairen historian daude ere Herri mugakideekin izandako liskarra, batez ere Deba, Zestoa edo Getariarekin.

Edo Udal-langileei ordaindu ezin izan ziren garaiak ere badaude.

Edo Euskaraz hitz egin edo idatzi ezin izan diren garai hurbilak ere badaude eta historian idatzita geratzeko da, gaur egunean aukeratuak izaterik ez duten zenbait pertsonen egoera ere.

Gertaera guzti hauek, Herriko gure historiaren parte bat dira eta gaur hemen gaudenoi, Herriko historiaren narrazio etengabeen beste lau urteetako zati bat idazteari ekiten diogu. Herria eta Herritarrak behar dute izan gure lanaren helburu, Zumaiarrak gara eta harro gaude. Elkar puntuak bilatu ditzagun eta ezinbestean horrelakorik gertatzen ez bada, bakoitzak berea defendatu dezala eta errespetuz gehiengoak adierazten duena aurrera eramanez.

Orain lana egitea tokatzen zaigu, beraz, hemen zaudeten denori ánimo eta lanera.

Eskerrik asko, denoi.

Udal Korporazioaren eraketa ekitaldia amaitutzat ematen da eta bertaratu diren guztiei eskerrak emanez, goizeko bederatziak eta laurden direnean, eta guzti hori ziurtatzen dut idazkari gisa.

ZUMAIA, 2011 ko ekainaren 12an

O.E.
ALKATEA.-

IDAZKARIA.-